

Bizkaian enplegu eta ekintzailtza programak kudeatzeaz arduratzen den irabazi asmorik gabeko elkarte batek, egoitza Barakaldon duenak, **enplegu teknikari** bat behar du. Diziplina anitzeko profesional talde handi baten barruan lan egingo du, enpleguarekin eta enplegarritasunaren hobekuntzarekin zerikusia duten programak, ekintzak eta ekitaldiak gauzatzen laguntzen.

Betekizunak:

-Gizarte zientzien arloko unibertsitate titulu bat edukitzea, eta espezializazio graduondokoren bat, giza baliabideen arlokoa (lan orientazioa).

-Ondo ezagutzea Bizkaiko erakunde eta enpresa egitura, enpleguari eta ekintzailtzari dagokienez. Eremuko beste erakunde batzuekiko harremanen sarea ere balioetsiko da.

-Ofimatikako tresnak fidagarritasunez erabiltzen jakitea, baita enpleguarekin lotutako aplikazioak, on-line plataformak eta sare sozialak erabiltzen ere. Era berean, tresna digitaletan oinarritutako enplegu bilaketari buruzko formakuntza/orientazioa emateko gai izatea.

-Teknikari lanpostuetan eskarmentua izatea hainbat eratako programak garatzen: enplegu programak, enpleguaren formakuntzarako programak, lan arloko laguntzarako programak, enpleguari begirako talde dinamizazioko programak, tokiko/eskualdeko enplegu planen programak. Lehentasuna emango zaie Bizkaiko erakunde publikoetan garatutako programei. Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeentzako arreta programetan duen eskarmentua ere balioetsiko da.

-Eskarmentu frogagarria izatea enpresak aztertzeke lanetan, lan bitartekaritzako zereginetan, hautaketa prozesuetan, laguntza lanetan eta lan arloko orientazioan.

Baloratuko da:

-Zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna

-Ekintzailtzarekin lotutako esperientzia

Eskaintzen da:

Berehala lanean hastea, lanaldi osoan, errelebo kontratu bidez, egonkortasuna lortzeko aukerarekin eta postuarekin bat datorren soldatarekin. Eskaerak aurkezteko epea

2019ko azaroaren 14an amaituko da.